

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

9/2020 Foru Araua, ekainaren 17koa, 7/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 2koa, baliozkotzeko, COVID-19arekin lotura duten eta Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eragiten dieten premiazko neurriak onesteko

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko ekainaren 17an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

9/2020 Foru Araua, ekainaren 17koa, 7/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 2koa, baliozkotzeko, COVID-19arekin lotura duten eta Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eragiten dieten premiazko neurriak onesteko.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, ekainaren 2ko 7/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, COVID-19arekin lotura duten eta Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eragiten dieten premiazko neurriak onesteko.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da ekinaren 2ko 7/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, COVID-19arekin lotura duten eta Sozietateen gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eragiten dieten premiazko neurriak onesteko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 17a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA